

Ipuin lehiaketa antolatu du Legorretako liburutegiak

Lanak abenduaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean

Legorretako liburutegiak euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du. Hiru kategoria izango dira, eta lan guztiek abenduaren 12rako egon beharko dute Legorretako udaletxean.

Lehendabiziko kategorian lehendabiziko hezkuntzako haurrek parte hartu ahal izango dute. Bigarren kategorian, berriz, 16 urtera bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute. Hirugarren kategorian, berriz, 17 urtetik gorako heldu guztiek parte hartzeko aukera izango dute.

Lanak bost orrialde izango dituzte gehienez, eta lehendabiziko kategoriako partehartzaileek eskuz idatzita aurkeztu ahal izango dituzte. Gainontzeko guztiek ordenagailuz aurkeztu beharko dituzte, antolatzaileek jadanik publikatu dituzten gutxieneko baldintzak beteta.

Lehiaketaren epaimahaia abenduaren 30ean jakingo da, Legorretako gabonetako egitarauaren barruan. Egun berean egingo dute sari banaketa ere, Gazte Piku gaztetxean, lehiaketara aurkeztutako ipuin guztiak irakurri eta erabakia hartu ondoren. >i.m.